



**UDALTOP
SOZIOLINGUISTIKA**
JARDUNALDIA 2014

Euskara
erabiltzeko
planak:
**elkarrekin
berritzen**

Lasarte-Oria
(Gipuzkoa)

**2014ko
maiatzak
15/16**

| Amets biltzailea | Ametsak |
|-------------------|---|
| Iñaki Marko | <p>.. non konplexurik ez dagoen; .. eta udaleko arduradunak eta zinegotziak besteen aurrean eredu diren; .. eta ondorioz euskararen berezko balioa gizarte kapitala bihurtu den; .. eta horrela euskarak udal osoari eta herritarrari poza ematen dion ... eta teknikariak, jubilatzerakoan, oinordekorik behar izango ez duen.</p> |
| Xabier Larrañaga | <p>Gure taldean ere otzara bete amets bildu dugu. Elkarren aurkakoak ere bai, batzuk. Besteak beste, agintariak eta langileak aktibatuta izateaz amestu dugu; eta herritarrak aktibatzeaz ere bai. Agintariak aktibatu ahal izateko biderik eta modurik badela ikasi dugu egunotan, lidergoaren inguruan aurkeztu dizkiguten ponentzietan azaldu digutenez. Langileak aktibatzeaz ere amestu dugu; izan ere, lidergoaz ari garela, kontuan izan behar baita, adibidez, erakunde baten harrera gunean dagoen langilea ere punta-puntako liderra izan daitekeela hizkuntzaren ikuspegitik, berak daukalako, neurri batean behintzat, herritarren hizkuntza hautua bideratzeko ahalmena eta, konturatu ez arren, bera delako erakundearen irudia. Herritarrak aktibatzeaz ere amestu dugu. Zehazki, arnasmuneetako herritarrak euren balio erantsiaz jabeazteko premia ikusi dugu, eta, horri begira, arnasmuneak sendotzeko eta babesteko legerik noizko izango ote den galdetu dugu. Hori guztia lortzeko, elkarlana, indar guzti-guztiak batzea, ilusioa, seduzioa, eredugarritasuna... bezalako rolak antzeman ditugu normalizaio teknikariontzako, zer eta, etorkizun ez hain urrunean, normalizazio teknikariok gure lanaz harro, pozik, itxaropentsu eta gustura senti gaitzen.</p> |
| Imanol Haro | <p>Amestu dugu beste euskara teknikari bat dagoela, baina ez beste pertsona bat, baizik eta eta beste pertsona mota bat: giza taldeak manejatzen/gobernatzen gaitasuna duena. Ametsetako euskara teknikaria bat da, baina ez bakarria, beste bat da euskararen normalizazioaren aldeko prozesuan. Bat da, baina ez da guztia, guztia ez da bere bizkar erortzen, eta berak ez du guztia egin behar. Ametsetako euskara teknikariak aliatuak, bidelagunak, babesleak... ditu. Ametsetako euskara teknikaria ez da matrakalaria izango, bideratzailea eta bide-erakuslea izango da. Ametsetako euskara teknikariak irekidura eta berrikuntza izango ditu lanaren ardatz, eta zabalbideak irekiko ditu. Ametsetako euskara teknikaria hori izateaz gain, hizkuntza gaietan aditua ere izango da, besteak beste, horrek emango diolako autoritatea.</p> |
| Joxean Amundarain | <p>Bi kontzeptu nabarmendu ziren: praktika gogoetatsuaren beharra (alegia, gure lanaz hausnarketa egitea) eta alofilia. Kurioso da lider hitza ez zela behin ere aipatu ni han egon nintzen bitartean. Euskara teknikariek euren burua bidelagun, eragile, laguntzaile ... bezala ikusten dute. Hala ere, halako jarrera positiboen ordez nabarmendu da beste kontzeptu bat, behartu behar izatearena, Iñaki Martinez de Lunaren ildotik: noiz arte izango da libre plan bat ez egitea? eta ez betetzea? Langile publikoak askotan behartzen dituzte modu jakin batera jokatzera (erropa jakin bat erabili, protokolo jain bat jarraitu ...), noiz behartuko dituzte euskara erabiltzera? Eta azkenean ilusioa. Ilusioa antzematen da topaketetan eta jendeak ilusioz alde egiten du Udaltopetik.</p> |



| Amets biltzailea | Ametsak |
|------------------|---|
| Maite Alvarez | <p>Amets handiak izan dira gure taldean, erresistentziarik gabe euskaraz bizi garen Euskal Herria amestu dugu udalaren unibertsoari begiratuta, ikuspegi eta norabide argia izango duen euskara plana amestu dugu, non langileak eta agintariak batera erakunde osora zabalduko duten plana, etenik gabe, mugimenduan. Eta horretarako, Euskara Zerbitzuko lantaldea gogotsu arituko da, eta hausnarketarako denbora izango du.</p> <p>Teknikariek jokatu duten rola aktiboa izango da: aktibatzaile, dinamizatzaile, motibatzaile, bultzatzaile, bitartekari, aholkulari, gidari eta beste langileen parekoa, inoren atzetik ibili beharrik izan barik.</p> <p>Eta emozio positiboak irudikatu ditugu: ausarkia, sortzaile izateko askatasuna onartzea, ilusioa, gogoia, poza, etsipenetik ateratzeko harrotasuna, irrika, jakin-mina, hobetzeko ilusioa eta energia, irmotasuna eta malgutasuna eta azkenik</p> <p>Udaltop Soziolinguistika jardunaldian, entzundakoogatik inbidia eta norberarenera eroateko gogoia piztu zaigu.</p> |
| Mikel Irizar | <p>Gaurko saio honen emaitzak landuko dira, baina egin dugun ariketa bera da oso garrantzitsua: egunerokotik begirada altxa eta elkarri begiratu. Eta begiradek topo egin dutenean abiatu da ametsa.</p> <p>Amets egin duzue beldurrik gabe, bide berriak urratzeko ilusioz eta helmugara iritsi behararen arduraz. Erakutsi duzue berrikuntzarako prestutasun handia, zuen egitekoa errotik aldatzea eskatuko balu ere.</p> <p>Zuen gaitasun eta prestutasun hori uztartzen badugu Klusterraren inguruan biltzen ari den jakindurarekin, euskaltzaleen mugimenduan sumatzen den aktibazioarekin eta erakundeen aldetik proposatzen den lankidetzarekin, ziur nago indartsu ekingo diogula euskararen normalizazioak eskatzen duen ziklo berriari. Indar horiek guztiak saretuta mundua jan dezakegu!</p> |